

# Diskoak

IKER BARANDIARAN



**Gorantz erori...**  
Antton.  
Baga Biga.  
Iraupena: 37'22".  
11 euro.

## Altxatzeko modu hunkigarria

ELORRIOKO Lor taldeko Landerrek eta Anttonek talde bihurtu dute hasieran bikote proiektua zena eta emaitza dotorea da. Hastapenetan bakarlari trazako proiektua zela erraz antzematzen da lan honetako kanta gehienek duten abiapuntua entzunda: tempo lasai eta goxoarekin, ahots ia biluziarekin hasten dira abesti asko, baina denbora gutxira taldea gehitzen da intentsitatea era oso berezian biderkatuz; gorantz doaz kantak klimaxerantz.

Melodiak borobiltzeko aukeratutako domekako estalkiak, guztiak dotoreak, pop-rock gitarreroa, new waveroa eta kasuren batean world-musicekoa dira. Luxuzko instrumentazioaz eta kanten goranzko garapenez gain, oso kontuan hartzekoak dira abeslariak transmititzen dituen melodia eta emozioa ere. Eta hitzek asko dute balore sinesgarrietatik; berriro altxatetik.

[www.anttonmusika.com](http://www.anttonmusika.com)

### Antton

## «Grabaketan, baliabide teknikoak baino naturaltasuna eta intuizioa lehenetsi ditugu»

“Izan nahi dudana eraiki eta nintzena desegin”. Zerotik hastea komenigarria da?

Lor-ek bazuen ibilbide oparibat eginga, Anttonek ibilbide xume bat, hau hala ere aurreiritzi gabekoa da, hortaz, badu zerotik hastetik.

“Maitasuna ixil-ixilik” dago gure inguruan barra-barra? A ze baikortasuna!

Gure herrian luzaroegi dugu maitasuna ixilik, zain. Falta zaizkigun lagun eta senideen hutsune hotza maitasunak daki ixil-ixilik duintasunez bero mantentzen.

Lan honetan ahotsa asko landu duzue, tarteka ia biluzik utzita...

Begiratu izan dugu kantari unean zer komeni zaion eta horrela bideratu ditugu ahotsa zein instrumentazioa. Badakigu zuzenekoari begira biluztasun hori kontra bihur daitekeela, baina kantagatik egin dugu apustu.



Argia askotan agertzen da diskoan.

Ez gara iluntasun zale. Iluntasuna arazo moduan ulertuta; arazoan bueltaka ito baino irtenbidea bilatzearen aldekoak gara. Diskoan musika, mezu eta hitz aldetik ematen den zerbait da. Badira hemen iluntasuna mantentzen interesatuak, horren aurka argitasun puntu bat zuzentzeko era ere bada.

Hitzek asko dute barrura begiratzetik, norberaren eta kanpokoaren ona eta argia aurkitzetik, benetako baloreetatik eta altxatetik.

Saiatzen gara hitzetan mezua txertatzen, mamia izaten, hermetikoegi egin gabe letrei erreparatzen dienak norbere irakurketa egin dezan.

Konponketa txukunak daude eta soinuak distira handia du. Gauzak oso argi zenituzten estudioa joan aurretik?

Gero ikusi dugu gauza txiki batzuk aldatuta emaitza hobetu genezakeela, eta akaso pena

horrekin geratu gara. Mikel Santosek lan itzela egin du. Grabaketan, baliabide teknikoak baino naturaltasuna eta intuizioa lehenetsi ditugu. Ondarroako Santos-en grabatu genuen; badira estudio hobeak eta medioetan aberatsagoak, baina lanak badu bihotz bat, bestela lortuko ez genuena. ■

